

Arrasaten, 2023ko azaroaren 21ean

BANCO INVERISIS SA-N GERTAKARIA

Joan den azaroaren 3an Banco Inversis SAK jakinarazi zion LABORAL Kutxari norbait baimenik gabe sartu zela bere bezeroen datu pertsonaletara, eta horretaz konturatu orduko, martxan jarri zituztela beharrezko segurtasun-neurriak, teknikoak zein antolaerakoak, egoera horri aurre egiteko eta etorkizunean berriz horrelakorik ez gertatzeko.

Adierazi zutenez, zenbait entitatetako (LABORAL Kutxa barne) bezeroen datu pertsonaletara sartu zen norbait, hain zuzen ere, nazioarteko gestoreetan Inbertsio Funtsetan inbertitzeko beren plataforma erabiltzen dutenetara, eta horrela datu batzuk lortu zituzten (adibidez, izen-abizenak, identifikazio-dokumentua eta harremanetarako datuak), baina ez zuten lortu informazio ekonomikorik (esate baterako, kontu-zenbakirik edo finantza-tresnen eragiketarik edo posiziorik), ezta eragiketak egiteko erabil litekeen informaziorik ere.

Bide batez, jakinarazpen hau baliatu nahi du LABORAL Kutxak datu pertsonalekin zuhur jokatzeko gomendioak azpimarratzeko beste behin ere, eta segurtasunaren arloan eman ohi dituen aholkuak gogorarazteko:

LABORAL Kutxak ez dizu inoiz eskatuko online bankan sartzeko daturik SMS esteken edo beste edozein bitartekoren bidez.

LABORAL Kutxak ez dizu inoiz eskatuko erabilera bakarreko koderik (edozein eragiketa sinatzeko SMS bidez bidalitako gakoak); horretarako aurretik zuk eragiketa bat hasi beharko duzu.

Zure ekimenez ez bada, ez eman inoiz datu pertsonalik telefonoz edo beste edozein kanalen bidez.

Gogoratu zure eskura daukazula, halaber, entitatearen Datuak Babesteko Ordezkaría, helbide elektronikoa honen bidez: protecciondatos@laboralkutxa.com